

ZM

ZORROTZ MORROTZ

51. EDIZIOA 2018ko MAIATZA

SARA NIETO

“GO!AZEN” TELESAILERAKO AKTOREA

ZORROTZAKO GURE ESKU DAGO

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

%5eko deskontua
lehenengo urteko priman Kutxabanken
bezeroa izateagatik.



ETORKIZUNA, SEGURU. KUTXABANKEKIN SEGURU.

BIZI ASEGUURUAK

Sozietateak kontrataziorako dituen arauekin bat etorruta, Kutxabank Bizi Aseguruak Kutxabank Vida y Pensiones Compañía de Seguros y Reaseguros SAU izeneko sozietatearenak dira. Bestalde, Kutxabank Vida y Pensiones izeneko sozietatearen banka-aseguruetako operadore bakarra Kutxabank da eta bere baimena dauka Kutxabank Aseguradora izeneko sozietatearekin eragiketak egiteko. Gainera, Artekariaren Erregistro Administraliborezian inskribatuta dago C0654A95653077 zenbakipean. Kanpainaren azken eguna: 2018/12/31.

Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077.
Bizkaiako Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 5226 Tomoa,
0 Liburua, B-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa



ERRAZ
HURBIL
ORAIN

Bilbon euskaraz

B

Bilbao



www.bilbaeuskaraz.eus

Beste Bilbo bat posible da

Hau idazteko uanean Bilboko Auzo Elkarten Federazioak antolatutako eta apirilaren 28an izatekoa den "Beste Bilbo bat posible da. Defendatu dezagun elkarrekin orain arte bananduta egiten genuena" manifestazioa izatear da. Deialdi honek ehunka atxikipen jaso ditu gizarte talde edo elkarsteengandik, sindikatu, eta abar. Pauso hau beste Bilbo bat posible dela aldarrikatzeko hasiera bezala ulertzen dugu.

Zorrotzari dagokionez, hainbat gauzatan jarraitzen dugu lanean: FEVE geltokiaren lurperatzea, elkarbizitza, gizahezkuntzazko proiektua, be- launialdiarteko proiektua, eta abar...

Taldeon Koordinakundea urtero antolatzen duen Zorrotza Gozatu eta Bizi kultur programa lantzen ari da. Programa honen barruan Zorrotza eguna ospatzen da.

Gauza hauei guztiei adi egoteko animatzen zaituztegu eta Zorrotza hobe baten alde jarraituko dugu lanean.

Hurrengora arte!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
"harpidetza" jarritz



Zorrotzako kultur aldzkaria
51. zenbakia. 2018ko maiatza

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behega

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzaMorrotz

@zorrotzmorrotz

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC



Diseinu grafikoa:

irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**

Bodegón

Abaro estrata 8
(Omega galeriako sarrera)

Mobilizazio berria maiatzaren 9an, FEVE geltokia lurperatze aldera aurrerapausorik eman ez delako

Igor Gutiérrez

Otsaileko mobilizazioen ostean Auzo Elkar-teak FEVEren inguruko berriak jaso zituen udaletik, alegia, martxoan Espainiako Sus-tapen Ministerioarekin hitzarmena sinatu-

ko zuela lurperatze-lanen kostuari erdibana aurre egiteko. Obra eta Zerbitzu Saileko zi-negotzi Ricardo Barkalak berak zuzenean ezagutarazi zien Iñigo de la Serna ministroa-rekin berretsi beharreko akordioa.



Martxoan joan da eta apirila ere pasatzeko zorian dago albiste hau idazteko unean eta ez da inongo berririk hitzarmen horren ingur-uan. Hori dela eta, Auzo Mugimenduak mo-bilizazio berria deitu du maiatzarako. “Gure pazientziak muga bat dauka: maiatzaren 9a” esanez hasten da manifestaldiko deial-dia eta atzerako kontu batez iragartzen du gehienez ere epe horretara arte itxarongo dutela aurrerapausoren bat ematen den.

Ez dute FEVE lurperatzeko aukera gehiagori-k galdu nahi, eta hartara auzo osoari egun horretan kalera ateratzea eskatzen diete. Era berean, saltokiei ixteko eskatzen zaie, mobilizazioak oihartzun handiagoa izan dezan.

ZINEBIn eta FANTen parte hartutako filmen aukeraketa “Zine Zorrotza”n ikusgai

Zorrotz Morrotz

Zine Zorrotza programa maiatzaren 3an inau-guratuko da, ZINEBItik igaro diren helduentza-ko umorezko film laburren aukeraketarekin. Maiatzaren 17an eta 24an saioen generoa aldatu egingo da, Bilboko Zinemaldi Fan-tastikoaren – FANTen azken edizioan parte hartu duten film labur hoberenen aukeraketa eskaintzeko, horiek ere helduei zuzenduta. Horrez gain, programazioak lekua gorde du umeentzat, duela denbora gutxi egindako ani-maziozko bi film luze eskainiz: “Tarzan”, ekai-naren 5ean, eta “Ballerina”, ekainaren 7an, biak ere arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Maiatzaren 10ean, arratsaldeko 19:30etik au-rrrera, Zine Zorrotzak Bilboko Cancer Moon rock taldeak, pertsonalki eta talde gisa, izan zuen ibilbidean zentratzen den “Atrapados por la serpiente” (2017) dokumentala eskai-niko du. 80ko hamarkadaren amaieran, Jon Zamarriparen eta Josetxo Anituaren (1964-2008) eskutik, Bilbon sortu zen taldearen in-guruko istorio globala kontatu nahi du.

Saio guztiak Zorrotzako udaltegian izango dira, eta sarrera librekoa izango da, aretoko leku guztiak bete arte. Info gehiago eta or-dutegi guztiak www.kulturabarrutik.eus web-gunean.

Zorrotzak Clown Jaialdiaren IX. edizioa jasoko du maiatzaren 3, 4 eta 5ean

Bilboko Udalak antolatutako Clown Zorrotza programak Cia. Nogusano eta Shakti Olaizola euskal konpainien eta Danimarkako eta Argentinako Lotta & Stina eta Cia. Levelibular taldeen partaidetza izango du. Azoka parkean, Udaltegian eta auzoko liburutegian gauzatuko da, eta umorezko eta familia osoari zuzendutako ikuskizunak dira guztiak

Zorrotz Morrotz

Programazioa ostegunean hasiko da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Zorrotzako Udal Liburutegian, Idoia Sánchez Artiedak eskainiko duen “Ah Ze komeria!” ikuskizunarekin, familia osorako ipuin-kontalari saioarekin.

Ostiralean –maiatzak 4–, programak saio bikoitza jasoko du 18:30ean eta 19:30ean, Azoka Parkean. Lehenengo Cia. Nogusano taldea etorriko da, familia osoari zuzendutako “A pan y agua” lanarekin. Umorezko ikuskizun lotsagabe horren protagonistak apaiz bat eta herritar bat dira, Paolo Di Gianvincenzo eta Ion Zumelaga ibilbide luzeko clownen



eskutik. Ondoren Shakti Olaizola etorriko da, antzerkia, zirkua eta txotxongiloak fusionatzen dituen “Baldin bada” ikuskizunarekin.

Clown Zorrotzaren aurtengo edizioa larunbatean –maiatzak 5– amaituko da, arratsaldeko 18:30ean Azoka Plazan hasiko den Lotta & Stina konpainia daniararren ikuskizunarekin. Akrobazietan espezializatutako zirkuko bi artista dira. 19:30etik aurrera Cia. Levelibular argentinarren txanda izango da, “Portamundos” ikuskizunarekin. Zirkua (malabarrak eta makil txinatarra) eta antzerkia fusionatuz ikus-entzuleak hunkitzen dituen eta inguruan gertatzen den guztiarekin etengabe jolasten den Sigimundo da protagonista.



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Aro onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

ibarretaluxury
OPTICA ★

GOI-GAMAKO
**2 BETAURREKO
PROGRESIBO**

245€

Zorrotza
C/ Estrada de Abaro, 5
Tlf: 944 27 40 80

* Graduazioen menpean. Zilindrorako -2 eta esferarako +4.
Pertsona berarentzat eta graduazio bera bada.

RPS: 96/13

Zorrotza 2018-2022 Plan Soziala adostu du Auzo Mugimenduak

“Zorrotza zorrozten” prozesuaren ondorioz, dinamika soziala eta auzoko energiak antolatzeko eta ordenatzeko “Zorrotza 2018-2022” plan berria definitu du Auzo Mugimenduak.

Saul Kurto

Azaroko ZMeko orrialdeetan aurreratu genuen bezala, auzoko eragileek, unibertsitateko ikasle batek lagunduta, barne prozesu bat hasi zuten. Artikulu honetan prozesu horren nondik nora-koak eta emaitzak lehen lerrora ekarriko ditugu.

Abiapuntua eta asmoa

Pasa den urtean “Zorrotza 2007-2017 Herri Plan Soziala” bukatzen zelarik, horri bukaera emateko eta, batez ere, aurrera begira kokatzeko “Zorrotza zorrozten” prozesu parte-hartzaile proposatu zitzaizen gure auzoko eragileei. Prozesu horren funtsak bi ziren: alde batetik, egunerokotasunetik burua altxatu eta epe luzeko begirada batekin gure azken urteetako ibilbidea baloratzea; bestalde, egindakoaren oinarri horretatik eta gaurko egoeratik, aurrera begira auzo gisa dauden erronkak definitzen hastea. Hori guztia herritar antolatu eta ez-antolatuen iritziekin.

Zorrotza zorrozten prozesuaren garapena

Prozesua ikerketa parte-hartzailearen tekniken bidez garatu zen. Auzo mugimenduko kideen informazioa, iritziak, hausnarketak eta irakurketa anitzak jasotzeko erraminta eta dinamika parte-hartzaile desberdinak garatu ziren. 1) Iraila-azaroa, 25 elkarrizketa informal kide desberdinekin; 2) Azaroa-abendua, 15 elkarrizketa formal galdetegiarekin; 3) Abenduaren amaieran, auzo gisa lehentasunak definitzeko fluxograma tailer bat; 4) Abendua-urtarrila, saretik egindako galdetegi azkarra lehentasunak definitzeko. Oinarri horrekin, urtarilaren bigarren astean diagnostiko-txosten bat elaboratu zen, eta horrekin batera, plan baterako oinarritzko ideien zirriborroa eztabaidarako.

Horrekin guztiarekin, urtarilaren 20an Auzo etxean burutu zen mugimenduen ordezkarien

Hiru lehentasun sozialak:

1. Sozio-eragileak
2. Sozio kultural-bizikidetzak
3. Sozio-ekonomikoa

Azpiegituren hiru lehentasunak:

1. Feveren lurperatzea
2. Auzo/Kultur etxea
3. Mugikortasuna eta garraioak

batzar orokor bat. Helburua, guztion artean batu eta oinarritzko plan baterako proposamenak, ideiak eta iritziak elkartrukatzea zen, egindako zirriborroaren gainean guztion ekarpenak jasotzeko. Talde ezberdinetako 21 kide egon ziren goiz osoa eta balorazio ona egin zen. Hortik ateratako ideiekin urtarileko koordinadorara zirriborro berri bat eraman zen, eta bertan otsailaren 21ean herri asanblada irekita deitzea erabaki zen, auzokide ez-antolatuei zirriborroa azaltzeko eta haien ekarpenak jasotzeko. Otsaileko koordinadoran prozesua bukatutzat eman zen.

Prozesuaren emaitza

Emaitza “Zorrotza 2018-2022 Auzo Plan Soziala” berria izan da. Bi gauza ikusi dira: 1) kontua ez da hainbeste gauza berriak asmatzea, baizik eta auzoan martxan dauden dinamikak eta energiak norabide komun batean kokatzea; 2) epe erdiko plana izan behar zen, 2 urte gutxi, 10 urtera gehiegi; 3) gauza handiak baino, pausoz-pauso egindako bidea izan behar da. Funtsa: auzoaren indarra bere batasunean dago; auzo gisa pentsatu, auzo gisa aritu. Bakoitzak berean, baina gauza batzuetan “denok batera!” bultzatzen. Ondo dauden gauzak indartu, ahul daudenak hobetu edota aldatu. Talde sozialen arteko komunikazioa hobetzea; aktibitate bateratuak indartzea: hasteko, Zorrotza Gozatu eta Bizi eta bereziki Zorrotza Eguna.

Zorrotza Kastrexana errepidea

Kale hau Nerbioi itsadarra parean jaiotzen da, Montevideo eta Fraijuan kaleak elkartzan diren puntuen ta kastrexana ganatik jaisten zan Bilbo-Burgos errepidean amaitzen da. Bere garaian trafiko handiko kalea izan da, batipat Etxebarria lantegiren kamioiekaz, ikatza eroaten kaitik eta altzairuegaz kontrako bidaiak egiten; baita enkarterritik zetozan guztiak kaire edo Santurtzirantza eta buelta. Hogeigarren mendearen hasieran langile kooperatibek eta lantegiek, egin ebezan etxe talde batzuk kalea auzotik ateratzen dan inguruan (FEVE trenbidetik aurrerantza), garaian lantxarrak besterik ez zegozala inguruan. Kale hasieran zinema barrie eraiki ebien, hirurogetamar hamarkadararte pelikulak botetan eta antzerki batzuk egiten (garaian oso zaila zela egitea errejimenen alde ez zana) iraun zeban.



Patxoren taberna



Zinema zaharra

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Jai-Alai
kafetegia

Abato estrata, 12
94 490 12 59

“Hemen jendea oso adeitsua da, baina gertutasun eta berezkotasun apur bat falta zaie”



MARINA DE LA FUENTE

Bizitokia: Stuttgart (Alemania)

Noiztik: 2012ko irailetik

Adina: 29 urte

Lanbidea: Software garatzailea.

Marina de la Fuentek 6 urte daramatza Alemanian gustuko duen lana burutzen. Bertako bizimoduarekin pozik aurkitu dugu, baina ahal duen guztietan bueltatzen da gure auzora, batez ere, familia, kale giroa eta janaria faltan baititu

Testua: Iratze Pérez

Argazkiak: Marina de la Fuente

Noiz eta zergatik joan zinen Stuttgart-era? Hain urrunean egon zaren lehenengo lekua da?

2012ko Irailean etorri nintzen hemen nire gustoko lana aurkitu nuelako eta esperientzia bat atzerrian izateko gogoia nuelako. Hemen Software garatzaile lan egiten dut automobil industriarako. Estampazioan egiten nuen lan Bilbon, automobil industrian han ere, eta elektronikarekin erlazioz gogoia nuelako. Ez zen lehenengo aldia izan atzerrian bizi nintzela, lehenago Alemaniako iparraldean egon nintzen sei hilabetez eta Erresuma Batuan ere hilabete bat igarota nuen.

Zaila egingo litzazuke Euskal Herrian maila horretako lana aurkitzea?

Daukadan esperientziarekin, ez dut uzte oso zaila izango litzaidakeenik lana topatzea. Baina Alemanian askoz errazagoa da eskaintza handia dagoelako eta lan baldintzak askoz ere hobetoak direlako. Gainera, hemen lan giroa nahiko ona da. Pixka bat serioagoa baina estres gutxiagokoa. Normalean, askatasun handiagoa dauka langileak. Arduradunak, berak esandakoa epean entregatuko dela badaki, beraz, ez du zertan langilean lana kontrolatu.

Nola moldatzen zara hizkuntzarekin? Aurretik ikasia zeneukan?

Hasieran gutxi gora-behera moldatzen nintzen oinarritzko gauzetarako, Bilbon egonda

lau urtez hizkuntza eskolan ikasi nuelako baina praktika asko falta zitzaidan. Orain ez daukat problemarik.

Oso ezberdina da hango bizimodua, Zorrotzakoarekin konparaturik?

Bai, bizimodua nahiko ezberdina da hemen. Ez da bizitza askorik egiten kalean, batez ere neguan ez da jende askorik ikusten kanpoan, alemaniarrek askotan nahiago dute-lako lagunekin etxean topatu. Horregatik ez dago auzo giro hori hemen.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Bizimodu nahiko normala eramaten dut: goizetan lanera noa eta pare bat aktibitate egiten dut arratsaldean. Denbora librean daukadanean lagunekin ateratzen naiz, baina gehienetan Stuttgart-eko zentroan izaten da, hemen, bizi naizen auzoan, ez dut bizitza askorik egiten, batez ere bizitzeko gunea baita.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Pixka bat bai, hizkuntza ez nuelako oso ondo ulertzen eta alemanieraz lan egin behar nuelako. Ohituretara moldatzeko ere denbora nahikoa behar izan nuen.

Zer da han gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana jendea oso errespetutsua dela da eta oso bizitza lasaia eramaten dela hemen, Stuttgart oso hiri seguru dela uste dut. Gutxien gustatzen zaidana pertsonen gertutasun eta espontanitate apur bat falta dela da.



Zer duzu faltan?

Alde batetik, lagunak eta familia noski. Bestetik, kaleko giroa ere izaten da faltan, eta hango janaria.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Bai, nahikotan bueltatzen naiz, urtero beti bi-hiru-lau alditan.

Zorrotzara edo beste leku batera bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Normalean ez dut etorkizuna asko planeatzeko, momentuz hemen pare bat urte gehiago egoteko asmoa dut, baina azkenean berriz Zorrotzan edo inguruan amaitzea gus-tatuko litzaidake.

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Regalos
Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

**TABERNA
INDARRA**



Abaro estrata, 10

ZORROTZAKO GURE ESKU DAGO



Eskuz esku lanean, eta elkarri eskua emanda, erabakitzeo eskubidea eskuratzeko.

Euskal herritarren erabakitzeo eskubidea aldarrikatzen duen mugimendu nazionala Zorrotzan ere antolatuta eta sendo dabil. Duela 6 urte sortua, azken bolada honetan ekainaren 10eko giza katea mobilizazio mundiala izan dadin lanean dihardu.



Testua: Aitor Marin

Argazkiak: Zorrotzako Gure Esku Dago

Zorrotzako Gure Esku Dago taldea 2013an sortu zen, Euskal Herri mailan sortutako dinamikaren baitan. Erabakitzeo eskubidearen alde Euskal Herrian lan egiten duen dinamika "herritar, anitz eta parte-hartzaile" gisa aurkezten da Gure Esku Dago plataforma. Oinarrizko hiru printzipioren bueltan antolatu da dinamika hau sorreratik: "Herri bat gara; erabakitzeo eskubidea dugu; herritarron garaia da". Hiru printzio horien bueltan, "alboan ditugun pertsonetikiko begirunez eta era positiboan" lan egiten dute helburu argi batekin: erabakitzeo eskubidea herri honetan bizi garen guztion topalekua izan dadila, herritarrok gure etorkizuna erabaki dezagun.

Taldearen eginkizuna nazio mailako mugimenduak antolatutako ekintzetan parte hartzea bermatzea eta bultzatzea izan da gehien bat. Azkenengo boladan taldea apur bat deuseztatuta egon da. "Mobilizaziorik ez badago, jendea aktibatzea askoz zailagoa izaten baita. Leku gehienetan gertatu da horrela" azaldu dute. Baina orain dela hilabete pare bat, eta taldea birsortzeko asmoz, Auzo etxean egin zen asanblada ireki batera deitu zuten eta taldea "inoiz baino indartsuago" dagoela diote, eta gogotsu ekin diote datorren ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dituen giza kate erraldoian parte hartzeko kanpainari. "Ostiralero, 10 de Fray Juan tabernan mahai bat jartzen dugu, mobilizazioaren inguruan informazioa emateko, eta giza katerako atxikipena eta zapia hartzeko".

Ekainaren 10eko mobilizazioa oso garrantzitsua dela uste du Zorrotzako Gure Esku Dago. Auzoko bizilagunei katearen 123. km-a

egokitu zaie, Arriaga plazatik Alde Zaharreko Santa María kaleraino. “Elkarri eskua emateko milaka arrazoi ditugu. Erabakitzeak eskubidea posible egingo duen ziklo berri bat zabaltzeko aukerak badaude, baina aukerak ez dira etortzen, sortu behar dira, eta erabaki nahi dugu. Burujabe izan nahi dugu”.

Orain arteko une gogoangarrienaz galde-tzean, ez dago inolako zalantzarik taldean: duela lau urte Durango eta Iruñea lotu zuen giza katean parte hartzeko deialdia dator guztien burura. “Lan asko egin zen auzoan mobilizazio horretan jendea inplikatzeko. Eta ez zen nolanahikoa izan erantzuna!” adierazi du partaide batek. Izan ere, 2014ko giza kate horretan Zorrotzako bizilagunei Ataunen kilometro bat betetzea egokitu zitzaizen antolakuntzatik, eta auzokideen erantzuna izugarria izan zen: hiru autobus bete zituen Zorrotzako taldeak! Ia 150 pertsona mobilizatu ziren Zorrotzatik Ataunera, autobusez, egun-pasa manifestazio batean parte hartzeko!

Aipatu den bezala, nazio mailako ekimenen atzetik aritu ohi da taldea, baina ekitaldiak n parte hartzeko behar diren azpiegiturak lortzeko, gastuei aurre egiteko eta bere propaganda propioa egiteko, hainbat kultur ekitaldi eta jai antolatu ditu urte hauetan guztietan, eta dirua ateratzeko zenbait ekintza asmatu, hala nola boleto salmentak, pelotillak... Aurten, eta ekainaren 10eko giza katea ezagutarazteko, auzokideen arteko harremanak josteko eta “batez ere, ondo pasatzeko asmoz”, maiatzaren 19rako “Klik Eguna” antolatu dute Zorrotzan. Umeentzako ekitaldiak, antzerkiak, musi-



Ostiralero mahai informatiboa izango du Gure Esku Dagok El 10 de Fray Juan tabernaren aurrean ekainaren 10eko giza katean parte hartzeko atxikipenak eskuratu ahal izateko.

ka, poteoa eta herri bazkaria antolatuko dute, eta datozen egunetan kartelen bidez egitarau osoaren berri emango dute.

Esku bete lan dute Gure Esku Dagoko taldekideek. Esku askoren beharra dute ekainaren 10eko giza kateko 123. kilometroa betetzeko eta erabakitzeak eskubidea Euskal Herrian gauzatzeko, baina ziur daude Zorrotzan horretarako ilusioa eta konpromisoa sobra dagoela. Eta horretan lagundu nahi duen oro, eskuzabalik hartuko dute taldean www.facebook.com/GED-Zorrotza. gureeskuadagozorrotza@gmail.com



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86

**Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...**

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

SARA NIETO: Go!azen telesaileko aktorea

“Epea bukatu baino hiru minutu aurretik bidali nuen *Bagoaz!* saioko kastinera aurkezteko bideoa. Hortik bi egunera, Miramonen kontratua sinatu nuen”

ETB1eko “Bagoaz!” eta Euskal Herriko nerabeen artean azken urteetako fenomenorik handienetarikoa izan den “Go!azen” telesailan agertzeagatik ezagun bihurtu den 19 urteko neska zorrotzarra da Sara Nieto. Horietan antzeztu, dantzatu eta abestu egin du, baina aktorea, dantzaria eta abeslaria dela entzutean, hori guztia izateko “ikasten dabilela” erantzuten du umiltasunez. Ahotsa lantzeko antzerkia eta dantza ikasketak Madrilan jarraitzen dituen bitartean, tartetxo bat izan du gure galderak erantzuteko.

Txikitatik aktorea izan nahi zenuen?

Bai, betidanik. Etxean txikitan amaren soineko eta takoiak janzen nituen eta kristoren numeroak egiten nituen! Klasean abesteko edo antzezteko boluntarioak behar zirenean, ni beti prest... Artista izan nahi nuen, kar kar!

Bagoaz ETB1eko saioan hasi ginen zu ikusten. Nola heldu zinen kastingetara?

Aritz Mendiola, "Go!azen"eko Gari, nirekin joaten zen klasera. Berak esan zidan ni bezalako jende "melodramatikoaren" bila zeudela ETBn. Bideo bat bidali behar zen abesten eta norberaren burua aurkezten. Ez neukan batere gogorik egiteko. Azkenean, bidaltzeko epea bukatzeko hiru minutu falta zirenean, gimnasialekutik etorri berri, lagunenean grabatuta, kutre baino kutreagoa zen bideo bat bidali nuen. Hurrengo eguneko goizean deitu zidaten Miramonen proba bat egiteko, eta handik bi egunera, kontratua sinatzen nengoen.

Nolakoa izan da telebista barrutik ezagutze-ko esperientzia?

Atzean dagoen taldea ezagutzea oso esperientzia ona izan da. Zuzendaria, produktoreak, makiladoreak, kamerak... Oso giro ona dago. "Bagoaz"en kasuan: lehiaketa bat da, publikoaren aurrean! Bada, neukan aurreiritzia guztiz aldatu dit barrutik bizitzeak. Abestiak lantzeko prozesuaz asko gozatu dut... Entseguak egiteko, arropa ezberdina probatu karakterizazioarako, laupabost ordu makillajea... Prozesu horretan hango jendearekin sortzen den giroa, izugarria da eta asko lagundu zidaten.

6. saioan kanporatua izan zinen. Aurrerago heltzea espero zenuen?

Ez, benetan ezetz. Gehienez hiru saio, eta etxean ikusten nuen neure burua. Gainera, urte bat lehenago entzumen asko galdu nuen. Orain asko laguntzen duten audifono batzuei esker ondo entzuten dut, baina garai horretan ez nuen batere ondo entzuten, eta ez nion zuzendariari ez inori ezer esan hasieran, eta egia esan nire abesteko modua asko aldatu zen. Platoaren akustika ere ez da batere ona eta are okerrago... Azkenean pinganillo bat eskatu nuen audioko jendeari nire ahotsa entzun ahal izateko. Oso adeitsuak eta jatorrak izan ziren.



Gustura sentitu zinen eszenatoki gainean?

Gustukoa dut eszenatoki gainean egotea, baina oso urduri nengoen eta horregatik ez nuen pertsonalki hainbeste disfrutatu. Entzumena-aren arazoak ere ez zidan lagundu... Ahotsa oso ondo landuta zerman jendea ikusita, pianoa, kitarra eta ez dakit zenbat instrumentu jotzen dakien jendea ikusi nuenean... Hainbeste talentu nire inguruan ikusita, maila horretatik urrun ikusi nuen neure burua, eta horrek oso urduri jarri ninduen, nahiz eta ni oso pertsona lasaia izan. Gainera, programarako toma bakarra dago. Txarto eginez gero, txarto emitituko da eta ikusle guztiek ikusiko dute. Presio handia da hori...

Eta abentura hori bukatu zenean, Go!azen telesaila heldu zen. Nola heldu zitzaizun telesaillean parte hartzeko aukera? Espero zenuen? Ezin ezetz esan, ezta?

Ikusi nuen "Go!azen!"eko kastingak ireki zirela, baina ez nuen ezta pentsatu ere egin horretara aurkeztea. Larunbat batean, ohean nintzela, "Go!azen"eko produktoreak deitu zidan pertsonaia baterako probatu nahi nindutela esanez. Proba egin nuen, Lore ez zen pertsonaia baterako, eta aurrera egin nuen. Azkenean niretzako zen papera Loreren zela ikusi nuenean ez nuen batere gustuko izan. Telesailaiko gaiztoaren laguna... Imajina! Baina kristoren aukera zen eta ezin ezetz esan.



“ Lore eta biok guztiz kontrakoak gara. Eta erabat kontrakoa den pertsoanaia antzeztea izugarria da ikasteko. Oso baliagarria izan zait Loreren pertsoaia ”

Sara eta Lore. Desberdinak dira? Zelan moldatu zinen Lore antzezteko?

Guztiz kontrakoak gara. Itxuran hasita. Janz- kera, piercingak, tatuaiaik, ilearen tintea, ras- tak ... Dena kendu behar izan nuen! Makillajea ere bai. Kolorete larrosa soilik jartzen zidaten Lorek lodiagoa eman zezala nahi zutelako. Hasieran, esan dudana bezala Loreren papera gorrotatzen nuen, baina orain asko maite dut Lore. Aktorea izaten ikasten ari den batentzat, norberaren erabat kontrakoa den pertsoaia antzeztea izugarria da ikasteko. Eta niri oso baliagarria izan zait.

Telesail musikala da Go!azen. Kantua, dantza eta antzerkia uztartzea zaila izan zitzaizun?

Ez! Hori da justu gehien gustatzen zaidana. Hirurak batera! Egia da guztia ez dela erraza izan, baina gustuko bidean, aldarrik ez!

Eta guztiak probatuta, zein nahiago duzu?

Hiru semealaba balira, ezin bakararra aukeratu! Kar, kar! Antzeztea oso gustukoa dut, baina guztiak uztartzea dut gustukoena.

Zer sentitu duzu zeure burua telebistan ikusi- ta?

Jendez lepo zegoen Euskalduna jauregian iku- si nuen lehenengo saioa. Neure burua pantaila erraldoi horretan ikustea... Ufa! Markel eta Lore gara “Go!azen”eko komedia apur bat duten pertsoaia bakarrak. Bada ume guztiak guk egindako antzezpenarekin barrez lehertzen ikusteak hunkitu ninduen. Pasada bat izan zen... Negarrez bukatu nuela aitortu behar dut.

Telebistan agertuta nabaritu al duzu kalean aldaketarik? Nola bizi izan duzu “Go!azen fe- nomenoa”?

Abisatuta geunden aurreko denboraldikoen partez, baina hala eta guztiz ere izugarria izan da. Telesaila grabatu ondoren Madrile- ra joan nintzen. Bueltatzean... “zer gertatu da hemen?!” Parke batetik edota ikastola baten albotik pasatu eta jendea nigana etortzea: “Loreeee! Loreee!... Izugarria!” Baina esan behar da, errespetu handiz beti. Ezberdina da “Go!azen” promozionatzeko ekitaldi batean egotea edo kaletik ikusten banaute. Jendeak badaki hori ezberdintzen eta eskertzekoa da. Hasieran oso arraroa egin zait, baina polita aldi berean.

Eta etxean nola hartu zuten?

Ondo baino hobeto. Ama fan handiena dut! Kar, kar! Saiatzen den arren, ez daki euska- raz, baina kapitulua bukatu ondoren hor neu- kan bere deia asko gustatu zitzaiola esateko... Donostian egon behar izan nuenean lagunak hara etorri ziren egun pasa, txakurra ekarri ere bai... Guztien laguntza izagarria izan da.

Zorrotzan ere nabaritu duzu “Go!azen” fe- nomenoa. Nerabeen artean euskararen erabi- leran eragina izan duela uste duzu?

Bai. Gogoratzen dut Gaztegunean egotea eta ume pila bat “Go!azen”eko abestiak abesten eta euskaraz egiten ikustea. Bere kabuz e!, ez zeukaten inor gainean euskaraz egin zeza- ten... Gero eta euskara gehiago entzuten da kalean. Niretzat hori izugarria izan da. Nik txiki-

tan ez nuen euskara ondo ikasteko aukerarik izan eta orain ume txikiak euskaraz entzuteak asko poztzen nau. Ea gero eta euskara gehiago entzuten dugun Zorrotzan!

Esperientzia honetan, zer gustatu zaizu gehien? Zer gutxien?

Ikasi dudan guztia. Asko lagundu dit. Madril-eko ikasketak hasi nituenean banekien kameraren aurrean nola lan egin, nora begiratu... Txarrena da batzuetan oso bakarrik sentitzen naizela. Familia, betiko lagunak urrun izatea, latza da askotan, baina eskerrak kideekin oso ondo moldatu naizen, eta "familia" berria egin dudana haiekin.

Eta emaitza ikusita. Telesaila gustukoa izan duzu?

Dudarik gabe. Ni baino publiko gazteago bati zuzenduta dago, eta ikusle baino, kritiko gisa ikusten dut. Akatsez ohartu eta apuntatzen ditut, gero klasean lantzeko eta berriro ez egiteko. Hala ere, kide guztion eboluzioa ikusita, eta zein ondo pasa dugun gogoratzean... Harro egoteko modukoa da! Ezer jakin gabe heldu ginen eta zenbat ikasi dugun! Eta telesailaren arrakasta hor da: hori ezin da ukatu.

Etorkizunerako. Proiektu berriren bat?

Ezin dut ezer aurreratu, baina zorionez itxura ona duten gauza batzuk badaude hor airean. Casting batzuk egin ditut, musikal batzuetarako, aktore lanetarako ere bai... Pena Madrilen dela guztia. Zorritzarrez etxean ez dago aktore lanean jarraitzeko Madrilen dauden aukerak. Eta Madrilen ere ez daude soberan, ez pentsa!



LABURREAN

Telebistako saio bat?

The Big Bang Theory.

Abeslari bat?

Janis Joplin.

Abesti bat?

Greyson Chanceren Sunshine & city ights.

Dantza egiteko lekurik onena?

Kalea.

Zerk poztzen zaitu?

Lagunekin egoteak poztzen nau.

Zerk haserretzen zaitu?

Gezurrek.

Abeslari edo aktorea ez bazina, zer izango zinateke?

Makilladorea agian.

Deskonektatzeko leku bat?

Gaztelugatzen izkutuan dagoen eta izkutuan jarraitzeko esango ez dudan leku bat.



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

AUTO ESKOLA

KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



Taberna

ATOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Maiatzak 3 osteguna

18:00 Liburutegian

IPIUIN KONTALARIA: Idoia Sánchez

19:30 Udaltegian. **ZINE ZORROTZA:**

Umorezko film laburren erakusketa.

Maiatzak 4 ostirala

18:30 Azoka p. **IX. CLOWN ZORROTZA:**

Shakti Olaizola eta Cia. Nogusano

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

HORAS MUERTAS + DEBORAH RIFF + BAKETAZO.

Maiatzak 5, larunbata

18:30 Azoka p. **IX. CLOWN ZORROTZA:**

Lotta & Stina eta Levelibular

21:00 Gaztetxean:

KONTZERTUA: KONSUMO RESPETO

Maiatzak 10, osteguna

19:30 Udaltegian

ZINE ZORROTZA: "Atrapados por la serpiente". (Dokumentala)

Maiatzak 11, ostirala

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

NOVUS ORDU + SIN MAS

Maiatzak 17, osteguna

19:30 Udaltegian. **ZINE ZORROTZA:**

Film laburren aukeraketa.

Maiatzak 18, ostirala

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

PRIMEROS AUXILIOS + PERROS CON ASMA + VOMITANDO DESPERDICIOS.

Maiatzak 19, larunbata

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

ARRANO PERTXA + GORPUZKING.

Maiatzak 25, larunbata

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

LENDAKARIS MUERTOS + TAKEDOWN.

Maiatzak 26, larunbata

21:00 Gaztetxean: **KONTZERTUA:**

GUNS N´CLONERS + ELECTRIC FUNERAL + DULCE CASTIGO.

Ekainak 5 / 7, asteartea / osteguna

18:00 Udaltegian. **ZINE ZORROTZA:**

FANT. (umeentzat). 9 urtetik aurrera (ekainak 5) / 6 urtetik aurrera (ekainak 7)

Sandwich arrautzeztatua



Osagaiak: urdaia, gazta, hegaluzea mahonesarekin

Bimbo motako ogi xerra pare bat esnetan uzten da beratzen. Prest dagoenean osagaiekin betetzen da; arrautzeztatu behar da arrautza eta gurinarekin; ondo berotutako oliotan frijitu, eta jateko prest.

On egin!

Zailtasun maila: Erraza

Prezioa: 1,80 euro

ARSENIO JATETXEA

Clara Campoamor, 8 48013, Zorrotza

Telefona: 94 612 93 85

Ordutegia: 7:00 - 23:00

Eguneko menua egunero. Plater konbinatuak, sandwichak, entsalada askotarikoak, ogitartekoak eta sartenekoak .



Doinua:

Zonbat pertsu alde.

Garai kaskarrak bizi

ditugu gaur egun

Madrilera bidean

dira hainbat lagun

mehatxuak kondenak

espetxe ta isun

Altsasuko larrosak

orain aldiz asun

nahiz eta ezintasunak

asko kendu digun

Altsasukoak aske

oihuka dezagun

Asier Urkiza



Bioklik

Asel Luzarraga. Elkar. 2018. 428 orrialde



Bilbo, XXI. mendearen erdialdea: teknologiak lagundutako demokrazia garatu batean bizi gara denak, biodemokrazian, non bizitzako xehetasun guztiak geure botoz erabakitzen ditugun, sakelakotik zuzenean egindako bozketaz: greba bat egin daitekeen ala ez, balizko delitu baten akusatua erruduna den ala ez... Gardena eta garbia dirudi sistemak, hiritar guztien partehartzea eskatzen eta bermatzen duena, baina perfektio horren ifrentzua ezagutuko du Txetxu Urrutik, bere emazte Nere Pozaren hilketagatik salatu eta atxilotzen dutenean. Distopia bihurtzen diren utopien tradizio politikoan (Orwell eta Huxleyren itzala nabarmen), irakurlea harrapatzea lortzen duen eleberri indartsu eta erritmo bizikoa idatzi du Asel Luzarragak, geure gizartearen gaitz eta joeren gainean pentsarazten duen begirada kritiko eta ironiko batekin: nolako familiak eraikitzen ari garen, nolako eskolak, telebista, entretenimendua, polizia, justizia, kartzela....



Gudazaleak:

Gudazaleak (Brixton Records) 2017



Bilbo handia musika estilo anitzen topalekua izan dugu betidanik. Punk doinuetaatik hasi melodia poperoagoetara, azken urteotako uzta musikala zinez aberasgarria eta oparoa dugu. Doinu indartsuak lantzeko asmoz, 2016an Txus Lozano ahots nagusia eta kitarra (Etsaiak taldean ibilitakoa) eta Amenaza taldeko Minas Gudazaleak proiektuari itxura ematen hasi zitzaizkion. Geroago, Mortis Causan aritutako Pirrik bateriaren lekua hartuta, lehenengo kontzertuak egiten hasi ziren. Soinua indartzeko asmoz iaz Eneka Urkijo kitarjolea sartu zen taldera eta Durangoko Azokan gaur hemen aurkeztzen dizuegun lehenengo lana kaleratu zuten. Estraineko lan honetan 9 abestitan zehar punk eta hardcorearen alderdi gogor zein melodikoak entzuteko parada izanen dugu. Kanta zuzen eta laburrak, kitarra zorrotz eta base erritmiko potenteak testuetan kritika soziala ardatz hartuta. Grabaketa Lozanok berak Bilbon bertan duen Luberri estudioan egin dute. Izan ere, hasieran aipatu dugunez, hiri hau zinez aberatsa dugu musikari dagokionez.

Ibai Barrios

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak

Menu bereziak (enkarnez)

Eguneko menua



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Zorrotza Eguna? Auzoko eguna!

Zorrotza Eguna auzoko harrotasuna, alaitasuna eta nortasuna indartzeko eta handitzeko ospatzen da. Auzoko energia eta gauza positiboak baloreen jartzeko eta munduaren aurrean eta lau haizetara ozen esateko "Zorrotzakoa naiz eta harro nago"!

Badakizu zer den auzo baten eguna? Badakizu gure auzoak egun propioa daukala? Ez, ez da egun santu bat, San Miguel, adibidez. Badakizu ez duela egun finkoa, baina bai egun zehatza jakiteko formula? Badakizu noiz sortu zen auzoko eguna? Eta zergatik edota zertarako? Badakizu Zorrotzakoa jende gehienak bere auzoko eguna zein den ez duela ezagutzen? Hurrengo lerroetan zer bait gehiago argitzen saiatuko gara.

Zorrotza Eguna ekainean ospatzen dugu. Ez du egun-zenbaki finkoa, baina badauka data zehatza eta urtero urtero aldatzen da. Zein da bere data? Data magiko bat: udako solstizioaren jaiaren aurreko larunbata. Hau da, ekainaren 23aren aurretik gelditzen den larunbata. Aurtan, ekainaren 23a larunbata denez, ba aurreko larunbatean 16an, Zorrotza Eguna izango da. Noiz sortu zen Zorrotza Eguna? 2007an egin zen lehen edizioa, Zorrotza 2007-2017 Auzo Planaren baitan. Orduetik urtero ospatu egin izan da.

Zein da funtsa eta zertarako egiten da?

Zorrotza Eguna auzoko harrotasuna, alaitasuna eta nortasuna indartzeko eta handitzeko da. Auzoko energia eta gauza positiboak baloreen jartzeko eta munduaren aurrean eta lau haizetara ozen esateko "Zorrotzakoa naiz eta harro nago!".

Zorrotza Eguna dena utzi eta kalera ateratzeko eguna da. Gure auzokideak eta gure kaleak pozez, indarrez, irrifarrez eta kolorez betetzeko eguna da. Ondo pasatu nahi dugu

eta gure auzoa zoriontasunez bizi, ospatu eta dastatu nahi dugu. Gure onena kalera ateratzeko eta albokoekin partekatzeke. Elkarrekin.

Zorrotza Eguna, auzokideen arteko harremanak bultzatzeko, errazteko eta indartzeko egun ezin hobea da. Gure arteko ezagutza, gure arteko hurbiltasuna handitzea da. Hurbiltasunak elkartasuna, errespetua eta elkar zaintzea dakartza. Gure komunitatea trinkotu eta elkar mimatu.

Zorrotza Eguna auzo gisa gure aldarrikapenak kalera ateratzeko eta zabaltzeko eguna da. Guretzat, alaitasuna eta aldarrikapena eskutik doaz. Gure historiak erakutsi digu auzo bezala irabazitako lorpenak auzoko borrokaren bidez izan dela. Elkarrekin. Zorrotza Eguna belaunaldiaren arteko ezagutza eta herri mugimendua auzokideei hurbiltzeko eguna da. Auzo izaera eta auzo ikuspegi elkartzeko eta bat egiteko. Denok dugu lekua, geurea baita!

Zer egin dezakezu eguna bultzatzeko? Hor jolas bat aurtengo ediziorako: bakoitzak bere inguruko 10 pertsonari Zorrotza Eguna zer den azaldu eta gonbidatu... erakarri behar ditugu. Izan zaitez Zorrotza Egunaren bultzatzaile aktiboa! Ekarri zure 10 lagun!

Ez ahaztu... ekainaren 16an, larunbata, Zorrotza Egunean dugu zita!

Fokua

Fokua non jartzen den, ez da txantxetarako gauza. Horren arabera izango baita lortzen den emaitza, ekintzak azaleratzen digun irudia. Testuingurua behin ezarrita, joko-arauak zeintzuk diren argi utzi eta gero hasten garela egoera bera aztertzen. Pentsamendu kritikorako ere ezin inportanteagoa, zer esanik ez. Egoera jakin bati nondik begiratzen zaion, nolako markoa jartzen den, horrek finkatuko ditu gerora egin daitezkeen kritika eta balorazioak. Jomuga egoki paratu behar, baldin eta ituan jo nahi bada.

Azkenaldian, ordea, desfokatu samar gabiltzalakoan nago. Denok. Botereari aferak desbideratzea komeni zaio, eztabaida loka-za guk ez jakiteraino zertaz ari garen, edo larriagoa dena, zertarako ari garen. De-

bateak eduki kritikoz hustu, eta helburuak lausotu. Teknika erraz bezain eraginkorra. Esajeratzen nabilela, guztiz gehiegizkoa dela nire larritasuna pentsa dezake irakurleak. Baina begi aurrean dugunari erreparatu eta eztabaida antzuak baino ez ditut ikusten nik.

CV-a puztearen inguruko txiste merkeak, unibertsitate batzuen ustelkeria eta logika merkantilista salatu orde; terrorismoa izan ote zen ala ez, Euskal Herriaren desmilitarizazioaz hitz egin gabe; Katalunia aldean hika-mika politikoak dira nagusi albisteetan, militanteak kartzelan dauden eta kalean erresistentzia antolatzen den bitartean. Botereak behin eta berriz borroka-eremua antzaldatzaren digu, eta agian etengabe bere atzetik ibili baino, guk geuk ireki beharko genituzke bideak. Fokua guk ezarri, boterea moldatu dadin.

Asier Urkiza



**!Kasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANA-ZORROTZATI BILBO

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
■ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELIZ

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
■ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
■ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Askotan esan dugun bezala, euskarak bere izenen generoa markatzen ez badu...

Zeren arabera dira euskal hitzak neska edo mutilentzako izenak? (Sua, Lur, Ur, Elur edo Ilargi, adibidez).

Izen arruntak eta toponimoak pertsonentzako izen bihurtzen diren momentuan, generoa hartzen dute. Hau da Euskaltzaindiak bere izendegia osatzeko ematen duen irizpideen azalpena:

Euskarak, oro har, izen batzuk erabiltzen ditu gizonezkoentzat eta beste batzuk emakumezkoentzat. Horieta gehienak santutegian agertzen dira eta, ikus daitekeenez, joera nagusia -a eta -e bukaera emakumez-

koei ezartzea izan da. Hitz arruntetatik eta toponimoetatik hartutako izenen bereizketa, tradizioari segitu egin dio, kontuan izanik izen arruntek ez dutela genero gramatikalik.

Hori dela eta, printzipioz, kontsonantez eta -i, -o, -u bokalez amaitutakoak gizonezkoentzat ematen dira, eta -a, -e bokalez amaitutakoak, berriz, emakumezkoentzat. Baina tradiziozko printzipio honek baditu bi salbuespen: batetik, Andre Mariaren santutegietatik emakume izentzat ematen direnak (Aitziber, Irantzu, Izaskun...) eta, bestetik, gizonezkoak izendatzeko denbora luzean erabili direnak, besteak beste, Gorka, Sendoa, Iraultza...

Izenen arteko bereizketa egitea beharrezkoa ote da gaur egun?

SALAKETA ARGAZKIA



Errepidea harrotu egiten denean

Abaro estratoko zoruak ez du kotxeen joan-etorria jasaten. Arazoa ez da berria, ezta konponbidea ere: zuloak estali eta hurrengora arte. Mortero inprimatua darabilte eta ez omen da erremedio egokia. Hobe lukete zoru guztia altxatu eta Zorroztgoiti bidean jarritakoa modukoa ipintzea.



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfo. 94 441 61 46

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com


Udan ere zuekin... Hiri Udalekuak 2018!

Jakingo duzuenez, Gure Lurra Elkartek urtean zehar hainbat jarduera burutzen ditugure auzoko neska mutilentzat. Opor garaietan ez da gutxiago izango, noski! Mota ezberdinetako udalekuak antolatzen ditugu, Zorrotzako txiki eta gazte guztiek aisiaz goza dezaten. Horietako bat, "Zorrotza, koloretako auzoa" Hiri Udalekuak dira, Zorrotzan bertan aurrera eramaten ditugunak, Zorrotzako Institutuan hain zuzen ere; hala ere, Zorrotzako beste toki batzuk ere erabiltzen ditugu, hala nola Kiroldegia, frontoia, Auzoetxea, Ortua...

Bertan, ekintza desberdinen bitartez sormena, autonomia, adierazpen artistikoa, balioak, gorputzaren adierazpena... landuko ditugu eta horretaz gain, lagunak egiteko eta primeran pasatzeko aukera ezin hobea da!

Hiri Udalekuak 2004 eta 2014 urteen artean jaiotako neska mutilentzat bideratuta daude eta ekainaren azken astean eta uztailaren lehenengo hamabostaldian burutuko dira.

Parte hartzaileek aste bakarrean, bitan edo hirutan parte hartzeko aukera izango dute, aste jarraian nahiz tarteka, eta jantokiko zerbitzuarekin edo ez. Jantoki zerbitzua hautatuz gero, ordutegia hurrengoa da: sarre-ra (malgua) 9:00etatik - 9:30era eta irteera 15:00etan. Jantokian ez geratuz gero, aldiz, sarrera (malgua) 9:00etatik - 9:30era eta ir-



teera 13:00etan. Gainera, lana eta familia bateragarri egiteko helburuarekin, aurtan, berrikuntza moduan, goizeko gela izango dugu, 8:00etatik 9:00ak arte.

Uda badoa hurbiltzen...beraz, ez pentsatu gehiago eta animatu parte hartzera! Primeran pasatuko dugu eta!

Informazio gehiago:

- www.gurelurra.org/colonias
- 615 78 33 50

Izen-ematea: Maiatzaren 2 - 4, 17etatik 20etara (Fray Juan 33)



**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkartea
Zorrotza



Araceli

Aparkaleku gehiago egiteko leku aproposak badaude, baina udalari berdin dio. TAO jartzea ez dut uste arazo honetarako irtenbidea izango denik.



Mari Carmen

Aparkatzea ez da batere erraza. Zazpilandan, aparkaleku asko kendu dituzte. TAO udalarentzat diru iturri bat gehiago baino ez litzateke izango.

Aparkalekuak eta TAO:

Aparkatzeko leku nahikorik al dago?
TAO bai ala ez?

Narrea Peña eta Zuriñe Vila



Arantza

Espaloi zabalagoak izateko aparkalekuak kentzea ezinbestekoa da... TAO ipintzeak, Zorrotzan garraio publikoa hartzeko Enkarterri edo Meatzaldetik datozenek hemen aparkatzea erabat ekidingo luke. Baina auzokideontzat beste zerga bat izango litzateke



Jon

Ni auzoan TAO jartzearen alde nago, betiere Bilbon ibilgailuen gaineko zerga ordaintzen dugunontzat dohainik bada.



Iñaki

Aparkaleku publiko gehiago egin beharko lirateke edo Txinbo lantegi zenaren sarbidea hobetu. Auzoko bizilagunok ez bagenu ordaindu behar, TAO irtenbide ona izan liteke



ZORROTZA HAZI ARAZI



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

ZINE ZORROTZA 2018

CENTRO MUNICIPAL
ZORROTZA
UDALTEGIA

MAIATZA / MAYO / 19:30

- 3** ZINEBIKLUB: UMOREZKO FILM LABURREN ERAKUSKETA
MUESTRA DE CORTOMETRAJES DE HUMOR
- 10** "ATRAPADOS POR LA SERPIENTE" 65' (DOCUMENTAL)
ÁLVARO FIERRO & IBON IBARLUCEA
- 17** FANT LABURREAN / FANT EN CORTO
- 24** FANT LABURREAN, EUSKAL FILMAK / FANT EN CORTO VASCOS

EKAINA / JUNIO / 18:00

- 5** "TARZÁN" (desde 9 años) / ALEMANIA / 2013 / 94' / REINHARD KLOOSS (EUSKARAZ).
- 7** "BALLERINA" (desde 6 años) / FRANTZIA - FRANCIA / 2016 / 89'
ERIC SUMMER, ÉRIC WARIN (EUSKARAZ).



KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao



WWW.KULTURABARRUTIK.EUS

IX CLOWN

ZORROTZA
2018
MAIATZA
MAYO

EGUENA 3 JUEVES

ZORROTZAKO LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA DE ZORROTZA

18:00 IDOIA SÁNCHEZ ARTIEDA "AH ZE KOMERIA!" (PÚBLICO FAMILIAR)

ZORROTZAKO UDALTEGIA / CENTRO MUNICIPAL DE ZORROTZA

19:30 ZINEBIKLUB - UMOREZKO FILM LABURREN ERAKUSKETA
MUESTRA DE CORTOMETRAJES DE HUMOR

BARIKUA 4 VIERNES

AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA

18:30 SHAKTI "BALDIN BADA" (EUSKAL HERRIA) (PÚBLICO FAMILIAR)

19:30 CIA. NOGUSANO "A PAN Y AGUA" (EUSKAL HERRIA) (PÚBLICO FAMILIAR)

ZAPATUA 5 SÁBADO

AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA

18:30 LOTTA & STINA "ROLA BOLA" (DINAMARCA) (PÚBLICO FAMILIAR)

19:15 CIA. LEVELIBULAR "PORTAMUNDOS" (ARGENTINA) (PÚBLICO FAMILIAR)



WWW.KULTURABARRUTIK.EUS



KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao